
Prest zaude umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko?

Euskaraz badakizu eta umeak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko prest bazaude, hurbil zaitez Laudio Udaleko Euskara Arloa (☎ 944034890 / ✉ euskara@audiokoudala.net). Bertatik egingo dizugu eskaeren eta eskaintzen arteko koordinazio lana. Zure izena (edo goitizena) eta kontaktu-telefono bat besterik ez dugu behar. Zerbitzu hau mugatuta dago lan horiek euskara hutsez egiteko prest daudenentzat.

Zure seme-alabak zaintzeko edo eskola partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila zabilta?

Hala bada, jo Euskara Arloa (☎ 944034890 / ✉ euskara@audiokoudala.net) eta bertan emango zaizkizu baterako zein besterako ditugun langileen zerrendak. Gero zeu jarri beharko zara harremanetan zerbitzuaren xehetasunak (orduak, ordainketak...) adosteko. Ekimen hau mugatuta dago zerbitzua euskaraz nahi dutenentzat.